# SUKAR-SINDREMEA
# SINDROME FEBRIL

**Zure seme-alabak orain dauzkan sintoma eta zeinuak direla-eta, hauxe da diagnostikoa: SUKAR-SINDROMEA.**

**ZER DA?**
**Sukarra edukitzeko, tenperatura 38 ° C-tik gorakoa izan behar da; normalean, organismoak infekzioari ematen dion erantzuna izaten da. Umeen artean, infekzio biriko arina da sukarra edukitzeko arrazoirik ohikoena. Sukarra arrisku gutxiko sintoma da, berez; sukarra altuagoa edo baxuagoa izatea eta eragin duen gaixotasunaren larritasuna ez daude lotuta, oro har.**

**ZER EGIN BEHAR DUT NIRE UMEAK SUKARRA DAUKANEAN?**
**Sukarra jaistearaztea ez da funtsezkoa, baina umea hobeto sentituko da. Horregatik, ez da sukar baxua tratatu behar (38ºC-tik beherakoa besapean, edo 38,5ºC-tik beherakoa uzkian), ezta umearen ongizate orokorrean eraginik ez duena ere.**

- **Sukarra tratatzeko, ohiko farmakoak erabil litezke, jarraibideen arabera: parazetamola edo ibuprofenoa.**
- **Neurri fisikoak ere lagungarriak izan daitezke: ur epeleko bainuak, konpresa epelak eta umeari likido fresko ugari eskaintzea.**
- **Ez da komenigarria bainu hotzak edo alkoholez bustitako zapiak erabiltzea.**

**ZERI JARRI BEHAR DIOT ARRETA NIRE UMEAK SUKARRA DAUKANEAN?**
**Umeak zantzu hauexek badauzka, berriro jo beharko duzu pediatrarenera edo larrialdietako zerbitzura:**

- **Goibel egotea edo logura handia, baita sukarra jaisten zaionean ere.**
- **Petekiak: ardo-gorri koloreko orban txikiak larruazalean, sakatzean desagertzen ez direnak**
- **Gorakoak behin eta berriro**
- **Bularreko ume txikienen kasuan, honakoak ere hartu beharrekoak dira kontuan: haserrekor eta kexati egotea, kontsolatu ezinik; jateko arazoak, eta arnasa hartzeko ahalegina egin behar izatea.**
- **Beharrezkoa da pediatrak aztertzea 2 hilabete baino gutxiago duen edozein umek sukarra duenean.**

**Zantzu horiek atzemateko, beharrezkoa da umeari gauez ere begiratzea; horretarako, komenigarria da arropa gutxirekin edukitzea, eta horrela tenperatura hobeto jaistea ere lortuko dugu.**
**Nahiz eta seme-alabak alarma-sintoma horiek ez eduki, komeni da pediatrak sukarraren jarraipena egitea; hark umearen eboluzio egokia egiaztatuko du eta, gainera, baliteke koadroaren eboluzio laburragatik hasieran agertu ez den fokuren bat atzematea .**

Su hijo ha sido diagnosticado de SINDROME FEBRIL, por los síntomas y signos que ahora presenta.

¿QUE ES?
La fiebre es la elevación de la temperatura a más de 38 º C y generalmente representa una respuesta del organismo a la infección. La causa más frecuente de fiebre en los niños es una infección vírica leve. La fiebre es un síntoma poco peligroso en sí mismo y el que sea más o menos elevada no guarda en general, relación con la gravedad de la enfermedad que la ha producido.

¿QUE DEBO HACER CUANDO MI HIJO TIENE FIEBRE?
Bajar la fiebre no es fundamental, pero proporcionará alivio al niño. Por este motivo, no debe tratarse aquella fiebre que sea de escasa cuantía (por debajo de 38ºC en la axila o 38,5ºC rectal) o que no afecte al bienestar general del niño.

- Para tratar la fiebre se pueden utilizar los fármacos habituales como el paracetamol o el ibuprofeno según las indicaciones.
- También puede ser de ayuda las medidas físicas como baños de agua templada, compresas tibias y ofrecer al niño abundantes líquidos frescos.
- No es conveniente utilizar baños fríos o paños de alcohol.

¿QUE DEBO VIGILAR CUANDO MI HIJO TIENE FIEBRE?
Usted deberá consultar de nuevo con su pediatra o con nuestro servicio de urgencias si su hijo presenta los siguientes signos:

- decaimiento o adormecimiento intenso, incluso cuando les baja la fiebre
- petequias: manchas pequeñas en la piel de color rojo vinoso que no se van al apretarlas.
- vómitos repetidos
- en los lactantes más pequeños además hay que vigilar: irritabilidad y quejido no consolables, dificultad para tomar y esfuerzo respiratorio.
- Todo lactante <2 meses con fiebre debe ser valorado por un pediatra.

Para detectar rápidamente estos hallazgos es necesario observar al niño incluso durante la noche; para ello es conveniente tenerle con poca ropa, con lo que conseguiremos, además, que baje mejor la temperatura.
A pesar de que su hijo no presente estos síntomas de alarma es conveniente un seguimiento de la fiebre por su pediatra, que verificará la buena evolución del niño y que además puede detectar algún foco que inicialmente no se manifestó por la corta evolución del cuadro.